



MINTZAMENA

LANTZEN 1.

MITXEL KALZAKORTA

ESKAINZA

Nire aita zenari

NOR. 23 hariak


NOR. WORK - 24 hariak

NOR. NORI WORK - 25 hariak

EGETUALA

↑ 33 gurean banatukoa

MITXEL KALZAKORTA



© Gipuzkoako Ikastolen Elkartea
Mitzel Kalzakorta
Gipuzkoako Irakasle Elkartearen Oniritziaz
Legezko Gordailu:
G. GARVICA - Bilbao. D. L. BI 2078/80

HITZAURREA

Liburuska honen helburua, gehienbat, zera da: ikastoletako ikasleen aho-hizkuntza lantzea. Erdal irakaskuntzan ez zaio aho-hizkuntzari gehiegizko garrantzirik ematen, gizarte eta komunikabideen bidez ondo ere ondo lantzen baita. Edozein erdal ikasle, edozein gauza arrunt adierazteko, ba da egitura eta hiztegi minimo baten jabe, eta eskola bidez landu eta aberastu egiten du. Euskal ikasleak, ostera, edo ez dira gauzarik sinpleenak adierazteko gauza edo eta adierazi arren ez dute tajuz egiten. Honen arrazoi nagusia euskal komunikabiderik ezean datzala dakigun arren, gauden «impass» honetatik ateratzeko zerbait egin beharra dago. Baina orain arteko euskal irakaskuntza, erdarazkoaren ildo beretik doa, kontutan izan gabe bata eta bestearen abiapuntuak diferenteak direla (euskal ikasle eta irakasleen euskara mintzatua, erdarazkoekiko askotaz urriago da).

Edozein irakaskuntzaren muina hizkuntza denez eta hizkuntzarena mintzamena, nik uste, euskal irakaskuntzan, erdarazkoan ez bezala, 2. hizkuntza bezalatsu eman behar dela euskara, gauden egoeran gaudela.

Denok dakigu 2. hizkuntza bi eratara ematen dela: extentsiboki eta intentsiboki. Extentsiboki asignatura bidez ematen da, baina intentsiboki emateko ez dugu ezer. Irakaskuntzarako dauden gramatikak, erdarazkoen antzera, tradizionalak dira, eta lehen esan dudanez, nik uste, mintzamenari eman behar diogula lehentasuna; osterantzean, latinarena jazoko zaigu. Horregatik, nire metodologiaren bitartez zera nahi nuke lortu: kalitatez zein kantitatez hizkuntzazko informazio-masa egokia eman, berau behar-beharrezko baitzaigu, euskal telebistarik ez dugun bitartean. Honela hizkuntzazko informazio-masa handia entzunez eta imitatuz, erreflejoak lantzea nahi da, gero, edozein egitura bapatean eta tajuz jaulkitzeko ahoz. Honenbestez, hizkuntza idatzia eta mintzatuaren artean dagoen itzelezko tartea moztu nahi da, ahoz esaten diren hizkuntz-astakeria galantak urrituz joanez.

Liburuan zehar lantzen diren egiturak aukeratzeko bi gauza eduki ditut kontutan:

- a) Haurren hutsegiteak, horretarako, Elgoibarko ikastolak eginiko zerrendan oinarritu naiz.
- b) Erabilkuntza-maiztasunaren araberrako egiturak.

Nortzuentzat ote da liburu hau? Denok dakigu, zoritxarrez jakin ere, ikastola berreko kurtso desberdinetako ikasleén aho-hizkuntza maila berdintsua dela. Hori dela eta, jakiteko non zeini aplikatu, tokian tokiako hizkuntza mintzatuaren arabera baliagarri izango da liburu hau. Toki batzutan 3. kurtzorako balio izango du; beste batzutan, ostera, 2. aroan ere bai. Erabiltzaileei eskatzen zaiena zera da: ia dena «pasi-boki» ulertzea, gero «aktibo» bihurtzeko, edo eta erabili bai, baina gaizki, gero tajuz erabiltzeko.

Liburu hau ez da euskarazko eskolak betetzeko metodo osoa. Ordubeteaz zehar, ordu laurden edo asko jota ordu erdi bat bete nahi du. Ba dakit, nik neuk ere amaitu eta gero ikusten bait dut, hainbat hutsune dituela metodologia honek, eta zeuok, irakasleok, egin espero dizkidazuen oharrez osatzea nahi nuke.

Amaitzeko eskerrik beroenak, Elena Erkiaga, Anjel Ugarteburu, Kepa Perez Urraza, Jose Ramon Zubizarreta, Sabin Madariaga eta Joseba Alkalderi eman didaten itzelezko laguntzagatik, baita Dionisio Amundaraini ere egin didan orrazketa dela eta. Eta bereziki Ondarroako Zubi-Zahar eta Donostiako Sto. Tomas Lizeoko nire ikasle ohiei, nire maisurik onenak izan bait dira.

Lekeition, 1980-ko Uztailean

LIBURUAREN ERABILKUNTZA

Segun zein arotan (1. edo 2. aroa) hala erabili behar da liburu hau. Aste bakoitzean zehar 2 ikasgai lantzeko daude pentsatuak. Bigarren aroan euskarazko ikastordutan (4-edo) emango den bitartean, ikasgai bakoitza bi egunetarako delarik, 1. aorako garairik onenak goizeko eta arratsaldeko sarrera ondoko denborak direla egokienak uste dut. Euskarazko ikastordu barruan, metodologia honi eskaini behar zaion denborari «txanda» deituz, honelako ordutegia proposatuko nuke ikasgai bakoitza lantzeko:

- | | | | |
|---------|------|-------------|----------------|
| | | | goizez bi |
| 1. aroa | ---- | 4 txandatan | arratsaldez bi |
| 2. aroa | ---- | 2 txandatan | |

Lehenengo aroan, ikusten denez, beste egun oso bat ere libre gelditzen da. Nahi bada, ikasgai bakoitza 5 txandatan ere eman daiteke.

Nola lant txanda bakoitza

Kontutan izanik, liburuaz gain esaldi-multzoko kaset grabatuak daudela.

a) Esaldi multzoarena

ENTZUNKETA

Kasetan grabatutako esaldi multzoak entzun ahala, bere baitan irakurri behar dituzte ikasleek.

IRAKURKETA

Ikasle goa bi taldetan banatu; batak lehenengo esaldia bi bider ozenki irakurri ahala, besteek isilik egon behar dute. Bigarren esaldia bi bider irakurri behar du beste taldeak. Eta horrela beste esaldiak, batak irakurri ahala, besteek entzun egin behar dute.

AZALPENA

Helburuen agerpena. Baita hitz gaitz bat edo besterena ere.

b) **Errepikaketa**

Sail honetako esaldi bakoitza bi bider errepikatu behar dute ikasleek, baina irakurri gabe. Hitz ordenen arrazoia azaltzea ere komenigarria litzateke

«HELBURUAK» sailean bi helburu moetak azaltzen dira:

a) **BERARIZKOAK**

b) **BIDEBATEZKOAK**

Sail honen arrazoij nagusia zera da: ikasleek argi eta garbi eduki ditzaten zeintzu egitura ari diren lantzen. Sail honetan agertzen den terminologia, erabili nahi bada, 5. mailatik gorako ikasleentzat dago pentsatua. Baina argi!, kontua ez da terminologia ikastea, egitura bera baino. Irakasleak egin behar duena zera da, helburuak zeintzu diren esateaz gain, esaldietako zein(tzu) parte(ta)n dagoen/dauden kokatuta adierazi.

«ERREPIKAKETA» sailaren bidez zera nahi dugu landu: erreflejoak sortu, hau da, ikasleek bapatean eta tajuz jaulki ditzaten edozelako aditz-flexioak (zaitut, ninduzun...). Horretarako, 12 edo 16 esaldi motzez osatua dago saila. Esaldi bakoitza, irakasleak behin esan ondoren, ikasleek bi bider ozenki errepikatu behar dute, baina irakurri gabe. Eta horrela esaldi guztiak. Sail honetan ere aditz-flexioak lantzeaz gain, joskera ere lantzen dugu, asteka-êdo hitzen ordena aldatuz, hala nola:

Nik zuri ZILA ikusi dizut

NEUK ikusi dizut zila

Nik ZEURI ikusi dizut zila

Euskaltzaindiak, joskeraren arazoaz erabakirik hartu ez dukeenez, gehiengoek erabili uste duten eran ipini dut, hau da, erakusleak galdegai direnean beti indartuak (neuk, zeuk...). ERREPIKAKETA saila honen beste berezitasun bat, kontrajarritasuna da. Zer den ulertzeko ikus «Liburu honetako metodologiaren oinarriak» apartatua.

Liburu honetan agertzen den terminologia, erabili nahi bada, gehienbat, 5. mailatik goranzko ikasleentzat dago pentsatua.

LIBURUAREN GAI-BANAKETA

Liburua ikasgaika dago banatua, orrialde bi betetzen dituela ikasgai bakoitzak.

Aurreko orrain

- a) Esaldi-multzoa
- b) Esaldi-multzoaren helburuak
- c) Ahozko errepikaketa

Atzeko orrian

- a) Esaldi multzoari buruzko ariketak
- b) Ahozko errepikaketari buruzko ariketak

Esaldi-multzoak 12 bat esaldiz osatuak daude, 6 esalditako bi taldetan banaturik. Esaldi bakoitzean zerbati «berariz» lantzeaz gain, beste zerbait(zu) ere lantzen d(it)ugu «bide batez». Esandakoa ulertzeko har dezagun «27. IKASGAI»-ko lehenengo esaldia:

«Nik Jon **astean behin** haserreraiziko banu, zuk hilero negar **eragingo** zenioke»

Berariz lantzen

Baldintzak (...banu, ...zenioke)

Bide batez lantzen

- a) ERAZI hitzaren erabilera
- b) ERAGIN hitzaren erabilera
- c) BEHIN hitzaren erabilera
- d) -ERO atzizkiaren erabilera.

«Esaldi-multzoa» sailean helburu berbereko era honetako esaldiz osatuta daude taldeko beste 5 esaldiak ere. Esaldi-multzoko beste taldean, berarizko helburua bera (baldintza) delarik; bidebatezkoak, ostera, beste batzu dira. Eta modu berean daude osatuak ikasgai guztietako esaldiak: «GLOBALIZATUAK», hau da, helburu jakin bat(zu) lantzeaz gain, beste helburu bat(zu) ere lantzen d(it)ugu bide batez. Sail honen helburua aipatutako eran, perpaus-moetak lantzea da.

Guzti hau egiteko ordu laurden bat behar da. Beharbada hobe litzateke «ERREPIKAKETA», «AZALPEN»-aren aurretik ematea. Lau urratsen (entzunketa, irakurketa, azalpena, errepikaketa) artean ez da tarterik egon behar, gauza bat balira bezala joan behar dute elkarren ondoan.

Eskema hau, ikasgai bakoitza lantzeko lehen txanda da. Bigarren aroko bigarren txandan gauza bera egiteaz gain, ariketak egin behar dira. Lehen aroan, ikasgai bakoitza lantzeko 4 edo 5 txanda daudenez, 2. txandan ere gauza bera egin eta 3. eta 4. enean ariketak ere bai.

Lehenengo 6 ikasgaiak, berrikusketa antzera daude pentsatuak. Nahi izanez gero, pentsatutako denboran baino azkarrago eman daitezke. Proposatzen diren ariketa batzu, 3. eta 4. mailetarako beharbada, gehiegizkoak dira. Nagusientzat alderantziz gerta daiteke. Ariketa gehiago nahi duenarentzat ikus beza «Esaldi-multzoaren garapen»-ean diodana.

Esaldi-multzoaren garapena

Liburuaren erabilkuntzan nioenez, esaldi-multzoak lantzeko 3 urrats behar-beharrezkotzat jotzen nituen:

- Entzunketa
- Irakurketa
- Azalpena.

Hala ere, ba dira beste urrats oso inportante batzu ere. Nik neuk liburuan zehar erabili ez ditudan arren, gomendagarriak iruditzen zaizkidenak.

- Esaldiak lehen aldian jarri (ahal bada)
- Esaldiak ezezka jarri, edo alderantziz (ahal bada)
- Ikasleek beren bizipen egoerazko esaldiak sortu behar dituzte, momentuan momentuko perpaus-moetaz. Perpaus kausalak lantzen ari bagara:

...-(e)lako... / ... eta / ...-(e)nez(gero...

- Momentuan momentuko perpaus-moetazko atzizkiez osaturiko aditz-flexio bat edo emanik esaldiak egin.

... nauzulako ... / ... duzu eta ... / ... denez (gero)

... ekarri diguzulako ... / ... dut eta / ... zaidanez (gero)

- Diktaketa: esaldi-multzoa bigarren txandan landu ondoren, nahi bada egin daiteke diktaketa.
- Eusmena (retentiba) lantzen: Ikasleen aditasuna lantzeko, noizik behin zera egin daiteke: edozein esaldi entzun ondoren, magnetofonia geratu, eta edozein ikasleri zein izan den azken esaldia galdetu.

Liburu honetako Metodologiaren oinarriak

1) Globalizatua

Liburu honetan **berariz** landu nahi denaz gain, beste zerbait ere lantzen da **bidez batez**. Honetara, momentu batez, bidebatezkoak direnak berarizkoak bihur daitezke, ikasketa erraztuz. Beste era batez esanda, ez dago zertan aditza, deklinabide eta abar zein bere aldetik landu beharrik, baizik eta berriz edozein sail landu ahala, besteak ere lant daitezke bide batez. Guzti hau esaldi-multzoan azaltzen da.

2) Kontrajarritasuna

Denok dakigu erdal eragipena dela eta, zein txarto erabiltzen den N-NK eta N-NK-NI aditz sistemak. Hori gainditzeko, nik uste, behar-beharrezko dela aipaturiko edozein sistematako aditz-flexio bat landu ahala, beste sisteman dagokiona lantzea, hau da, bikoteka (zaitut-dizut/ dut-diot/...). Erdal zonetan, bada transitibo-intransitibo aditzen arteko nahasketa ere. Horregatik, «Nik»-i dagozkion aditz-flexioak landu ahala, «Ni»-ri dagozkion landu beharrezkoa da. Guzti hau ERREPIKAKETA sailea ikusten da.

3) Dikotomia

Oker esaten diren perpausak zuzentzeko da, eta ahoz egin beharra dago. Nik neuk liburuan agertzen ez dudan arren behar-beharrezkoa delako aipatzen dut. Haurren, esate baterako, «ez nahi dut» esaldi ez dago zuzentzerik gaizki dagoela esanez hurrei.

Horretarako, perpaus zuzenak askotan eta tajuz esanak entzun behar dituzte, batetik; bestetik, beheko bezalako dikotomiazko galderak erabiliz, hau da, erantzun posibleak eskainiz.

Nahi duzu goxokia ala ez duzu nahi?

Zergatik etorri zara berandu? Autobusa galdu duzulako ala lotan geratu zarelako ala...

4) Intentsibotasuna

Ikasi edo zuzendu behar dena, behin eta berriz entzun, irakurri eta ozenki esan behar da, bizieraziz eta bereganatuz, gero nahi denean oharkabea, mekanikoki eta bapatean tajuz hitz egin dezaten. Horretara, **erreflexoak** lantzen dira bereziki, sistematisazioa bigarren maila baterako utziz.

5) Beharrianetatik abiatuz

Edozein egituratik lantzen hasi beharrean, batetik, ikasleen hutsegitetik, eta bestetik, maiztasunezko egituretatik abiatu da.

6) Azalpen gramatikalik eza

Ikasi behar dena, esan dugun legez, egoera baten inguruan, entzunaren entzunez eta esanaren esanez ikasten da, sistematisazioa eta gramatika ia erabat alde batera utziz, eta erabiltzen dena 2. aroko ikasleengan pentsaturik dago idatzia. Ez dago, beraz, metodologia honekin irakaspen magistralik eman beharrik.

7) Ordu banaketa

Intentsiboki lantzeak, aspergarritasuna sortzen du, bainan ahal den neurririk txikienean izan dadin, denbora laburrean egin beharra dago. Proposatutako ordutegian 15 bat minutu behar dira, baina ba da beste ordu banaketa egokiagorik 1. arorako.

GOIZA

ARRATSALDEA

A

B

A

B

Goizeko sarreran (A): Entzunketa/Irakurketa/Azalpena

Goizeko irteera (B): Errepikaketa

Arratsaldeko sarrera (A): Entzunketa/Irakurketa/(Azalpena)

Arratsaldeko irteera (B): Errepikaketa

8) Sormena

Esaldi-multzoaren garapenean nioenez, komenigarria litzateke sormena lantzeko bi ariketa-moeta egitea:

- a) Ikasleen moldekoak. Horretarako ikasleek beren bizipenezko esaldiak ahoz esan edo idatzi egingo dituzte.
- b) Irakasleak aurrez emandako zerbaiten inguruan esaldia osa.

1. IKASGAIA

- 1.- Ba zoaz? Bai, ba noa.
- 2.- Nora zoaz? Etxera noa.
- 3.- Zertara zoaz? Jatera noa.
- 4.- Nola zoaz? Kotxez noa.
- 5.- Ba daramazu ogia? Bai, ba daramat.
- 6.- Non daramazu ogia? Sakelan daramat.
- 7.- Zertarako daramazu ogia? Gustora jateko daramat.
- 8.- Non daramazu ogia? Eskuetan daramat.
- 9.- Zer ekarri didazu? Pilota ekarri dizut.
- 10.- Ekarriko al didazu? Bai, ekarriko dizut.
- 11.- Nondik ekarriko didazu? Dendatik ekarriko dizut.
- 12.- Non ekarri didazu? Eskuetan ekarri dizut.
- 13.- Nork eramango nau? Patxik eramango zaitu.
- 14.- Eramango al nau? Bai, eramango zaitu.
- 15.- Nora eramango nau? Etxera eramango zaitu.
- 16.- Nola eramango nau? Kotxez eramango zaitu.

HELBURUAK

Berarizkoak

Joskera landu nahi dugu bereziki. Ikus ezkerreko esaldien arteko diferentzia. Giltzarria, eskuineko esaldietan dago.

Etxera noa
Ba noa etxera
Neuk apurtu dut baloia
Apurtu dut baloia

NORA zoaz?
BA ZOAZ etxera?
NORK apurtu du baloia?
Zer egin duzu baloiaz?

Bidebatezkoak

JOAN eta ERAMAN aditzen sintetikerazko zenbait aditz-flexio.

ERREPIKAKETA

- | | | |
|--------------------------------|-----------------------------------|---------------------------------|
| 1.- Nik zeu ikusi ZAITUT | 7.- Nik umeak jo DITUT | 13.- Ni goiz jaikitzen NAIZ |
| 2.- Nik zuri zila ikusi DIZUT | 8.- Nik umeei txirula jo DIET | 14.- Umea esnatu DA |
| 3.- Nik zeuek ikusi ZAITUZTET | 9.- Umeak neu ikusi NAU | 15.- Niri liburua ahaztu ZAIT |
| 4.- Nik zuei zila ikusi DIZUET | 10.- Umeak niri zila ikusi DIT | 16.- Umeari txupetea erori ZAIO |
| 5.- Nik umea jo DUT | 11.- Umeek neu jo NAUTE | |
| 6.- Nik umeari txirula jo DIOT | 12.- Umeek niri txirula jo DIDATE | |

A Bete ondoko hutsuneak indikatiboko aditz-flexioez

Ni etxera joan	Nik lagunari txistua jo
Nik laguna jo	Nik lagunei txistua jo
Laguna ikastolara etorri	Nik lagunak jo
Lagunek niri txistua jo	Nik zuri zilbota ikusi
Lagunak neu ikusi	Nik zeu ikusi
Lagunak niri zilbota ikusi	Niri liburua galdu
Nik zeuek ikusi	Lagunari telebista gustatzen
Nik zuei zilbota ikusi	Lagunek neu jo
Nik ez behar baloirik	Nik ez nahi ogirik
Nik zu ez behar	Nik zuek ez nahi

B Ikus eta ikas

- 1.- NORK jo zaitu? PATXIK joa nau.
- 2.- NON jo zaitu? BURUAN jo nau.
- 3.- ZU jo al zaitu? Bai, NEU jo nau.
- 4.- JO al zaitu? BAI, jo nau.
- 5.- ZER egin dizu Patxik? JO egin nau.
- 6.- BAzoaz? Bai, BAnoa.

Erantzunetan maiuskulaz daudenei «galdegai» deitzen zaie, NOR, NON, NORK,... eta moeta hone-tako galdekatzaileei erantzuten dietelako. Normalean aditzaren aurrean doaz. Berariaz azter itzazu 4), 5) eta 6) adibideak.

C Jar itzazu ezker aldean esaldien galderak

- 1.- ? Oinez gatoz ikastolara.
- 2.- ? Ikastera gatoz ikastolara.
- 3.- ? Bai, ba gatoz ikastolara.
- 4.- ? Etxetik gatoz ikastolara.
- 5.- ? Bai, ekarriko dut pilota.
- 6.- ? Ekarki egingo dut pilota.

2. IKASGAIA

- 1.- Gu Gasteiza goaz, eta zuek nora zoazte? Gu ere Gasteiza goaz.
- 2.- Gu oinez goaz, eta zuek zola zoazte? Gu ere oinez goaz.
- 3.- Guk boltsa daramagu; zuek ere ba al daramazue? Bai, guk ere ba daramagu.
- 4.- Guk euritakoa ere ba daramagu, eta zuek? Baita, eta txistua ere bai.
- 5.- Eta danborrik ba al daramazue? Baita ere.
- 6.- Nork daki non dagoen Ea? Hemengo inork ez daki, baina horko norbaitek, eta hango edonork daki.
- 7.- Txabola horretan inor bizi al da? Bai, norbait bizi da, baina ez dakit nor.
- 8.- Zer dakarzue sakeletan? Nik ezer ez; honek ba dakar zerbait.
- 9.- Ba al daramazue ezer zorroetan? Nik ezer ez; horrek, ordea, ba darama zerbait
- 10.- Nor dabil ate atzean? Nik ez dut inor ikusten, baina norbait ba dabil.
- 11.- Inor ba al dabil gela barruan? Nik ez dut inor ikusten, baina norbait ba dabil.
- 12.- Nor igo daiteke Txindokira? Horko inor ez; baina hango norbait bai eta hemengo edonor ere bai.
- 13.- Inork ez dio inori inoiz inolako ezer eman ezeren truk.

HELBUĀUK

Berarizkoak

ERE hitzaren kokaera.

Nik ERE ekarri diot ogia Joni.

Nik Joni ERE ekarri diot ogia.

Nik ogia ERE ekarri diot Joni.

NOIZ, NOR, INOR, NORBAIT (NOR EDO NOR) eta berauen kidekoak.

Bidebatezkoak

JOAN eta ERAMAN aditzen sentetikerazko zenbait aditz-flexio.

ERREPIKAKETA

- | | | |
|-------------------------------------|--|------------------------------------|
| 1.- NIK zeu jo ZAITUT | 7.- Nik lagunak ikusi DITUT | 13.- Ni ikastolara etorri NAIZ |
| 2.- Nik zuri txistua jo DIZUT | 8.- Nik lagunei zilbota ikusi DIET | 14.- Laguna etxera joan DA |
| 3.- Nik zeuek jo ZAITUZTET | 9.- Lagunak neu jo NAU | 15.- Niri telebista gustatzen ZAIT |
| 4.- Nik zuei txistua jo DIZUET | 10.- Lagunak niri txistua jo DIT | 16.- Lagunari liburua galdu ZAIO |
| 5.- Nik laguna ikusi DUT | 11.- Lagunek neu ikusi NAUTE | |
| 6.- Nik lagunari zilbota ikusi DIOT | 12.- Lagunek niri zilbota ikusi DIDATE | |

A Ikus eta ikas

NORK NOR

Nik	Zu	-ZAITUT
Nik	Zuek	-ZAITUZTET
Nik	Hura	-DUT
Nik	Haiek	-DITUT
Hark	Ni	-NAU
Haiek	Ni	-NAUTE

NORK

NORI-Bat(zu)

Nik	Zuri-bat(zu)	-DIZUT/DIZKIZUT
Nik	Zuei-bat(zu)	-DIZUET/DIZKIZUET
Nik	Horri-bat(zu)	-DIOT/DIZKIOT
Nik	Horiei-bat(zu)	-DIET/DIZKIET
Hark	Niri-bat(zu)	-DIT/DIZKIT
Haiek	Niri-bat(zu)	-DIDATE/DIZKIDATE

NOR

Hi	-NAIZ
Hura	-DA

NORI

NOR

Niri	bat(zu)	ZAIT/ZAIZKIT
Hari	bat(zu)	ZAIO/ZAIZKIO

B Bete ondoko hutsuneak indikatiboko aditz-flexioez

Lagunek ni zigortuta utzi

Lagunari telebista gustatzen

Niri liburua lohitu

Nik zu bakean utzi

Nik lagunak bakean utzi

Nik zuri gozokia eman

Nik lagunari madaria eman

Nik lagunari gerezia eman

Nik ez behar pilotarik

Nik zu ez behar

Nik zuei gozokia eman

Nik zuek zigortuta utzi

Lagunak niri egunkaria eman

Lagunak ni pozik jarri

Lagunek niri txokolatea eman

Laguna ikastolara etorri

Nik laguna zigortuta utzi

Ni etxera joan

Nik ez nahi tebeorik

Nik zuek ez nahi

C Beheko eskuineko esaldietatik bat bakarrik dagokio ezkerrekoari. Aukera ezazu.

Patxik Joni ogia ekarri dio {
 Nik ere ekarri diot ogia.
 Nik ogia ere ekarri diot.
 Nik Joni ere ekarri diot.

D Ikus eta ikas

NORK hautsi du ontzia? {
 Hemengo INORK ez du hautsi.
 Hango NORBAITEK hautsi du.

INORK hautsi al du ontzia? {
 Bai, hango NORBAITEK hautsi du.
 Ez, INORK ez du hautsi.

Zer diferentzia dago NORK eta INORK-en bidez egindako galderen artean?

3. IKASGAIA

- 1.- Nik dakardan baloia polita da; honek dakarrena ere bai.
- 2.- Zuk dakarzun pilota ez da gogorra; haiek dakartena ere ez.
- 3.- Guk jostailua dakargu; baita Jonek ere.
- 4.- Zuek ez dakarzue libururik; ezta lapitzik ere.
- 5.- Norekin egon zara arratsalde osoan? Inorekin ere ez.
- 6.- Josu gure irakaslea noiz joango da ilargira? Inoiz ere ez.
- 7.- Nor dator? Inor ere ez. Nork jo zaitu? Inork ere ez.
- 8.- Nori esango diozu entzun duzun gezur hori? Beharbada inori ere ez.
- 9.- Etxetik natorrela, non ikusi nau Jonek? Eliza ondoan ikusi zaitu.
- 10.- Menditik zatozela, zertan aurkitu duzu Miren? Josten aurkitu dut.
- 11.- Kanean zehar zatoztela zerez jo zaituzte goardiak? Makilaz jo gaitu.
- 12.- Portuan zehar gatozela nola ezagutu gaitu Pilik? Jantzian ezagutu zaituzte.

HELBURUAK

Berarizkoak

- a) «ERE» hitzaren kokaera berezia.
Ogia jan dut eta sagarra ERE bai.
- b) Beste kokaera berezi bat.
Zer ekarri duzu? Ezer ERE ez.
- c) Joskera: galdegai arazoa.

Bidebatezkoak

- a) LA denborazko atzizkia.

ERREPIKAKETA

- | | | |
|------------------------------------|-------------------------------------|----------------------------------|
| 1.- Zuk neu ikusi NAUZU | 7.- Zuk umeak jo DITUZU | 13.- Zu goiz jaiki ZARA |
| 2.- Zuk neuri ikusi DIDAZU zilbota | 8.- Zuk umeei jo DIEZU txirula | 14.- Zein ume itzartu DA |
| 3.- Zuk geu ikusi GAITUZU | 9.- Umeak zeu ikusi ZAITU | 15.- Zuri liburua ahaztu ZAIZU |
| 4.- Zuk umea jo DUZU | 10.- Umeak zeuri ikusi DIZU zilbota | 16.- Ume bati pilota galdu ZAIJO |
| 5.- Zuk geuri ikusi DIGUZU zilbota | 11.- Umeek zeu jo ZAITUZTE | |
| 6.- Zuk umeari jo DIOZU Zilbota | 12.- Umeek zeuri jo DIZUTE txirula | |

A Bete ondoko hutsuneak indikatiboko aditz-flexioez

Zuk umea ikusi	Umeak zeu jo
Zuk umeak ikusi	Umeak zuri txirula jo
Zu itzartu	Zuk neu jo
Zuk umeei zilbota ikusi	Zein ume jaiki ?
Zuri pilota galdu	Umeek zeu ikusi
Zuk geu jo	Zuk niri txirula jo
Zuk guri txirula jo	Zuk umeari zilbota ikusi
Umeek zuri zilbota ikusi	Zuek ez behar pilotarik
Ume bati liburua galdu	Zuk ni ez behar
Zuk gu ez nahi	Zuk ez nahi tebeorik

B Jar itzazu ezker aldean, eskuineko esaldien galderak

1.-	? Zuk pilota kendu didazu niri.
2.-	? Niri zeuk kendu didazu pilota.
3.-	? Zuk niri pilota kendu didazu.
4.-	? Bai, kendu dizut pilota.
5.-	? Kendu egin didazu pilota.

C Gezi bidez seinala itzazu esaldi bakoitzari dagokion galdera

1.- Basora noala, basurdea hil dut.	a- Non hil duzu basurdea?
2.- Basora noala, goizean hil dut basurdea.	b- Nola hil dute?
3.- Basora noala, neuk hil dut basurdea.	c- Zer hil duzu etxera zoazela?
4.- Basora noala, tiroz hil dut basurdea.	d- Nora zoazela hil duzu basurdea?
5.- Basora noala, zubi aurrean hil dut basurdea.	e- Noiz hil duzu basurdea?
6.- Basora noala, hil dut basurdea.	f- Zer hil duzu?

D Ezkeraldeko esaldiei ezezka erantzun, lehenengo adibidea eredutzat hartuz

- 2.- Zer eman dizu Jonek?
- 3.- Nori eman diozu pilota?
- 4.- Non izan zara?
- 5.- Nora joan zarete?
- 6.- Nork ekarri dizu baloia?

54. IKASGAIA

- 1.- Nahi izanez gero, ni entera naiteke zu izan zaren ala ez jo nauzuna.
- 2.- Behar izanez gero, zu kontura zaitezke ni izan naizen ala ez animatu zaitudana.
- 3.- Gura izanez gero, gu ohar gaitzekue zuek izan zareten ala ez agurtu gaituzuenok.
- 4.- Entzunez gero, zuek jakitun jar zaitezketegui izan garen ala ez txalotu zaituztegunok.
- 5.- Nahi izanez gero, Itziar ohar daiteke ni izan naizen ala ez bultzatu dudana.
- 6.- Pentsatuz gero, neskak jakinean jar daitezke gu izan garen ala ez agurtu ditugunak.
- 7.- Nik, kotxez noala, lasai irakur dezaket; zuk, aldiz, ezin dezakezu irakur.
- 8.- Gu, Bilbora goazela, jaits gaitzekue Gernikan; zuek, aldiz, ezin zaitezketegui jaits.
- 9.- Ni, Txindokira igo naiteke 100 kg. daramadala; zuek, aldiz, ezin zaitezketegui igo.
- 10.- Zuek, mendi gailurretik zatoztela, eror zaitezketegui itzulika; gu, ordea, ezin gaitzekue eror.
- 11.- Nik, ikastolatik natorrela, ikus dezaket Pili; zuk, ordea, ezin dezakezu ikus.
- 12.- Gu, hondartzatik gatzela, elkar gaitzekue gurasoekin; zuek, ordea, ezin zaitezketegui elkar.

HELBURUAK

Berarizkoak

- a)- N aditz-moetazko potentzialak (Naiteke.....).
- b)- N-NK aditz-moetazko potentzialak (Dezaket.....).

Bidebatezkoak

- a)- -(E)NEZ GERO.
- b)- Zehar-galdera «-(e)n».
- c)- Perpaus modala «-(e)la».
- d)- Perpaus adbertsatiboak (aldiz, ordea).

ERREPIKAKETA

- 1.- Nik lagunak gonbida DITZAKET.
- 2.- Zuk umeak besarka DITZAKEZU.
- 3.- Guk adiskideak asper DITZAKEGU.
- 4.- Zuek bizikletak erabil DITZAKEZUE.
- 5.- Hark inurriak zapal DITZAKE.
- 6.- Haiek gaisoak senda DITZAKETE.

- 7.- Nik umeei gozokia ekar DIEZAIKET.
- 8.- Zuk mutilei adarra jo DIEZAIKEZU.
- 9.- Guk hurrei zila ikus DIEZAIKEGU.
- 10.- Zuek neskei panpina ken DIEZAIKEZUE.
- 11.- Honek osabei maitasuna eman DIEZAIKE.
- 12.- Hauek ilobei jostailua hauts DIEZAIKETE.

A Ikus eta ikas.

-ARENGATIK (Ezagun singularra)
Gazte -ENGATIK (Ezagun plurala)
-RENGATIK (Ezezaguna)

-ARENGATIK (Ezagun singularra)
Haur -ENGATIK (Ezagun plurala)
-ENGATIK (Ezezaguna)


Bete ondoko esaldietako hutsuneak:

Jon eta Josu lehengusu..... barik, beste hainbat lagun..... zigortu nau aitak.
Olatz adiskide..... barik beste zenbait adiskide..... bota nau irakasleak gelatik.
Zein ume..... erori zara? Idurre ume..... erori naiz.
Edozein mutil..... barik, Koldo eta Kepa mutil..... jo naute.
Aita..... ordeztu ama..... geratu behar izan dut etxean.
Irakasle adina andereño..... haserretu zait laguna.
Edozein irakasle..... ez naiz haserretzen.

B Ondoko esaldietako hutsuneak bete potentziazko aditz-flexioez.

Guk sagarrak ekar.....
Zuk Joxeri pilota utz.....
Idazleak liburua idatz.....
Zuek baserriak eraiki.....
Zuk amonari goxokiak eman.....
Guk gure barnea busti..... ardoz.
Haiek Joxeri pilota bat ekar.....
Zuk osabak agur.....
Joxek sagarrak igo.....
Nik neskari egunkaria ekar.....

Zuek mesede bat eska.....
Zuk irakasleari opari bat eskain.....
Haiek hizkuntza aberas.....
Zuk Euskal Herria altxa.....
Honek osabari laztan bat eman.....
Zuek umeari ipuina konta.....
Haiek zure nebak poz.....
Guk bonbila piz.....
Guk amari arraina eros.....
Zuek haurrei sagarrak bana.....



GIPUZKOAKO IKASTOLEN ELKARTEA

